

## OLARAN TALENTU FAKTORIA PROIEKTUA

### **Mozioari erantzuna:**

2008an Manufacturas Olaran eraikina Udal honen jabetza izatera pasa zen momentutik, Beasaingo Udalarentzat aukera eta erronka bilakatu zen.

Aukera, Ezkiaga auzoari eta Beasain osoari zerbitzu publiko osagarriak eskaintzeko leiho berri bat zabaltzen zelako eta erronka, 3.300m<sup>2</sup> baina gehiago dituen Monumentu Maltza bat birgaitu eta mantentzeko bideragarritasun formulak bilatu behar zirelako. Izan ere, beasaingarrek jakin behar dute tamaina honetako ondare bat ezin duela Beasaingo Udalak soilik mantendu, urtez-urte udal aurrekontuetan izango lukeen inpaktua ez delako jasagarria. Horregatik, kudeaketa ona, zuhurtzia eta ardura politikoa oinarritzat hartuta, eraikin razionalista hau birgaitu eta izango lituzkeen zebitzu publikoak finantzatzeko eredu desberdinak lantzen aritu da EAJ-PNV azken 17 urteetan.

Saiakera desberdinen ondoren, 2021 geroztik zerbitzu publiko hauei bideragarritasuna emango lioken lan ildo berri bat hartu zuen Udal Gobernu honek, dozenaka aurkezpen, lan-saio, tailer, eta bileren eskutik osatzen joan dena. Besteak beste, Goieki, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza bezalako erakundeetatik hasita, Goierriko unibertsitate, ikerketa zentru eta tamaina desberdinetako enprekin elkartuz, kooperatibak direnak, ez direnak, enpresa handiak, zein txikiak haintzakotzat hartuz eta beraien babesarekin. Horren adierazle dira, ekimena espresuki babesten duten erakunde desberdinen interes gutunak.

Lanketa honen emaitza izan da Olaranek bere barnean hartuko lukeen egoitzaren proposamena, bertako zerbitzu publikoak finantzatzeaz gain Beasainen eta bailara honek datozen hamarkadetan izango duen erronka bati aurre egiten lagunduko diguna: eskulan goierritarra hemen errotzea eta krisi demografikoaren ondorioz berreskuratu zein erakarri nahi diren pertsona guzti horiek goierri aukeratu dezatela gure sare industrial eta ekonomikoa garatzen jarraitzeko. Izan ere, ongizatea eta garapen ekonomikoa txanpon beraren bi aurpegi dira.

Ongi egindako lanaren konfidantzatik, Olaran Talentu Faktoriaren lehen proposamena beasaingarrei aurkeztu genien 2023ko hauteskudeetako programan, bere egin zutena maiatzean izandako emaitzak ikusita. Beraz, lan ardatzak orain bi urte dira publikoak, gardentasunez herri honentzat genituen proposamenak etxez-etxe partekatu eta kaleetan publikoki defendatu genituen eina.

2024ko urriko Lurralde Batzordean oposizioari proiektuaren xehetasunak azaldu ondoren, urriaren 28an Murumendi Eskolan zein 29an Batzar Areto honetan lehen bi parte-hartze saio burutu genituen non beasaingarrek berriro hitza hartu zuten ekarpenak eginez. Pasa den urritik gaur arte 7 hilabete igaro dira eta tartean 5

Lurralde Batzorde, oposizioko taldeek zein Udal Gobernuak proposamenak eztabaidu eta lantzeko dituzten foroetako bat. Bost aukera hauetan, oposizioak ez du proposamenik egin proiektua aberasteko. Aldiz, alternatiba bideragarriak egiteko borondate falta edo ezintasunagatik mozio honen aurrean beraien estrategia politikoak lerrokatu dituzte.

Hilabete hauetan ekarpenak egiteko izan dituzten batzordeez gain, oposizioarekin eraikina bisitatu genuen gure proiektua bertatik-bertara azalduz eta orain 10 egun, Olarenantzako proiektua lantzeko elkarrizketa berriak hasteko proposamena egin genuen oposizioko alderdi guztiei adostasun puntuak bilatzeko. Oraindik ez dugu erantzunik jaso.

Aldiz, erantzun, proposamen eta ekarpenak egin dituztenak beasaindarrak izan dira, maiatzeko parte-hartze prozesuan eraikinera egindako bisita eta parte-hartze tailer desberdinetan 100 herritar baino gehiagok parte-hartu dute, norbanako zein elkarte desberdinen izenean. Balorazio oso positiboa egiten dugu pozik gaude eta adierazpen hau beraiei eskerrak emateko ere baliatu nahiko genuke. Saio hauetan jasotakoa itzultzeko, datorren hilabetean itzulketa saioa egiteko konpromisoa hartu dugu. Baita edozein zalantza argitu edo informazioa ere emateko.

Guzti honegatik, Udal Gobernu honek Olaran birgaitzeko beasaindarrekin duen konpromezua betetzeko helburua berresten du eta aldi berean, oposizioko alderdi desberdinei eskua-luzatzen jarraituko du Olaran Talentu Faktoriako zerbitzu publikoak bideragarri egingo dituen proiektua osatzeko.

---

### **Respuesta a la moción:**

En 2008 el edificio Manufacturas Olaran pasó a ser propiedad de este Ayuntamiento, convirtiéndose en una oportunidad y un reto para el Ayuntamiento de Beasain.

Oportunidad, porque se abría una nueva ventana para ofrecer servicios públicos complementarios al barrio de Ezkiaga y a todo Beasain, y reto, porque había que buscar fórmulas de viabilidad para rehabilitar y mantener un patrimonio monumental de más de 3.300 m<sup>2</sup>. De hecho, las y los beasaindarras deben ser conscientes de que un patrimonio de esta envergadura no puede ser mantenido exclusivamente por el Ayuntamiento de Beasain, porque el impacto que año tras año tendría en los presupuestos municipales no es sostenible. Por eso, desde la buena gestión, la prudencia y la responsabilidad política, EAJ-PNV ha estado trabajando durante los últimos 17 años en diferentes modelos de financiación de los edificios públicos que rehabilitarán este edificio racionalista.

Tras diferentes intentos, desde 2021 este Gobierno Municipal adoptó una nueva línea de trabajo que daría viabilidad a estos servicios públicos, que se ha ido completando de la mano de decenas de presentaciones, sesiones de trabajo, talleres, y reuniones. Entre otras, comenzando por instituciones como Goieki, la Diputación Foral y el Gobierno Vasco, y con el apoyo y asociación de universidades, centros de investigación y empresas de diferentes características del Goierri, como cooperativas, empresas tractoras, pymes y auxiliares. Prueba de ello son las cartas de interés de las diferentes instituciones que apoyan expresamente la iniciativa.

Fruto de este trabajo ha sido la propuesta de la residencia que albergaría Olan, que además de financiar las infraestructuras y servicios públicos nos ayudará a hacer frente a un reto que tendrá esta comarca en las próximas décadas: el arraigo de la mano de obra goierritarra aquí y que todas esas personas que se quieran atraer como consecuencia de la crisis demográfica elijan el Goierri para mantener el desarrollo de nuestro tejido industrial y económico. Y es que el bienestar y el desarrollo económico son dos caras de una misma moneda.

Desde la confianza en el trabajo bien hecho, presentamos a las y los beasaindarras la primera propuesta de Olan Talentu Faktoria en el programa electoral de las elecciones de 2023, que hicieron suya a la vista de los resultados obtenidos en mayo. Por lo tanto, los ejes de trabajo son públicos desde hace dos años, cuando con transparencia compartimos nuestras propuestas para Beasain y las defendimos públicamente en la calle.

Tras exponer a la oposición los detalles del proyecto en la Comisión de Territorio de octubre de 2024, el 28 de octubre tanto en Murumendi Eskola como el 29 en esta Sala de Juntas celebramos las dos primeras sesiones participativas en las que las y los beasaindarras volvieron a tomar la palabra realizando sus aportaciones. Desde el pasado mes de octubre hasta hoy han pasado 7 meses y entre ellos 5 Comisiones de Territorio, uno de los diversos foros existentes en los que tanto los grupos de la oposición como el Gobierno Municipal debaten y elaboran sus propuestas. En estas cinco ocasiones, la oposición no ha hecho ninguna propuesta para enriquecer el proyecto. Sin embargo, en esta moción se han alineado sus estrategias políticas ante la falta o imposibilidad de presentar una alternativa viable.

Además de la ocasión para realizar aportaciones en las comisiones durante estos últimos meses, visitamos el edificio conjuntamente con la oposición explicando in situ nuestro proyecto, y hace 10 días, realizamos una propuesta para iniciar nuevas conversaciones en la elaboración del proyecto de Olan, para buscar puntos de encuentro entre todos los partidos de la oposición. Todavía no hemos recibido respuesta alguna.

En cambio, quienes han respondido realizando propuestas y aportaciones han sido las y los beasaindarras, en las diferentes visitas al edificio y en los talleres participativos realizados durante el proceso participativo de mayo donde han participado más de 100 ciudadanos y ciudadanas, en nombre propio y en el de diferentes entidades y asociaciones. Estamos muy satisfechos y hacemos una valoración muy positiva con lo cual nos gustaría aprovechar esta ocasión para hacerles llegar nuestro agradecimiento. Para realizar la devolución de lo aportado en estos talleres, nos hemos comprometido a realizar una sesión de devolución el próximo mes. También para aclarar cualquier duda o aportar información.

Por todo ello, este Gobierno Municipal se reafirma en el objetivo de cumplir con el compromiso que tiene con las y los beasaindarras de rehabilitar Olan y, al mismo tiempo, seguirá tendiendo la mano a los diferentes partidos de la oposición para completar el proyecto que haga viables los servicios públicos de Olan Talentu Faktoria.